

## EUSKARAREN KRISEILUA

Euskaraz hitzegiteak, kriseilu baten moduan ingurua argitzen du, goazen ikastetxea euskararen kriseiluez betetzera.

Jarduera honi indarra emateko, Ikastolen elkarteko Argitxo iratxoaren ipuina erabili ahal da.

<http://www.azkuefundazioa.eus/es/casa-del-euskera/mediateca-y-biblioteca/mediateca/argitxo-iratxoa>

### Materialak


- Kartulina
- Puntzoia edo txintxeta
- Kandela txiki bat
- Zelo

### Prozedura

Kartulinaran kriseiluan nahi dugun irudia marraztuko dugu eta ostean puntzoiarekin irudia zuloz beteko dugu.

Kartulinari zilindro forma emango diogu eta zeloarekin forma mantendu eraziko diogu.

Kandela piztuko dugu eta zilindroarekin estaliko dugu kriseilu bat osatuz.



## Eztabaida

- Gaur zenbat pertsona topatu dituzu euskaraz hitz egiten?
- Zuen herrian euskararen egoera nolakoa ote da?
- Ikastetxean euskaraz egiten al duzue? Eta patioan?
- Ikastetxetik kanpora euskaraz egiten al duzue? Eta zuen etxean?